

2021eko abenduaren 1a, asteazkena.

Urola Kostako eskola kiroleko mahaiaren komunikatu ofiziala

Covid-19aren kutsatzeen egungo egoera ikusita, Aia, Getaria, Orio eta Zarautzko ikastetxeek eta Eskola Kirolean egun jolasten ari garen jardunaldiak antolatzen dituen ZKE kirol elkarteak, gabonak pasa arte larunbatetako jardunaldiak bertan behera uztea erabaki dugu. Kutsatzeen gehiengoa Eskola Kirola egiten duten haurren adin tartean ematen ari da. Gainera, larunbatetan herri eta ikastetxe desberdinetako haurrak nahasteak kutsatze arriskua handitzen du eta hauen jarraipena zailtzen du. Ondorioz, egoera kontrolatu arte, geratzea dela egokiena uste dugu.

Azken jardunaldietan, etxeratzeak medio, osatzen ez ziren taldeen partiduak bertan behera uztean ere asko zaildu da jardunaldien antolaketa.

Hau dena ikusita, gabonak pasa arte, jardunaldiak bertan behera utziko ditugu. Ikastetxe bakoitzak astean zehar egiten dituen entrenamendu eta jolas saioei eutsiko zaie bizikidetza taldeetan direlako. Hurrek jarduera fisikoa egitea ere garrantzitsua delako garai hauetan.

Denon artean egoerari buelta emango diogulakoan, barkatu eragozpenak eta eskerrik asko kezkatik zuen ekarpenak egiten ari zareten guraso eta arduradun guztioi.

